

PASARTE HAUTATUA

Euria
Ifor ap Glyn

«Gure herriaren lehen musika euriaren txipli-txapla izan zen [basoan»

eta hasteko trebe ibili ginen zaparraden artean, mendian gora joz, ezkututka, perpausaz perpausa, beharra sortu ahala euriarekin [sinkopatzu...]

Baina ekaitza hain bihurtu zen [gupidagabea adierazpen oro lapurtu zigula, eta ebatsi iruzkin argi eta umore [beltz oro, dena, salbu eta uharretan xirriki- [xarraka jarraitzeko beharra, sen hori, zeinak gidatzen baikaitu ekaitzaren sinfonia disonantean, gure buru makur, lotsatu eta [hutsekin, eta euriari atabal zaizkion gure [sorbaldekin.

Glow poemaren itzulpena

Idatzizko poesiaz gain, arreta berezia jartzen du Glynnek zuzenekoetan ere, eta Youtuben ikus daitezke haren saio batzuk. Galeserapeatzen ageri da batean, errezitalak ematen beste batzuetan, eta badaude bideo irudiz lagundutako testuak ere. Bereziki zaindua da, adibidez, Hywel Griffith bideo gileak zuzendutako animazioko lana, Glynnek ume zenetik ezagututako Londresko metroari buruzko poema batean oinarritutakoa. Eta orain arte poeta nazional izan den Clarkek ere azpimarratu du Glyn zuzenekotarako zaletasun hori. «Dantzan jartzen dituz hitzak bai orrian eta bai oholztan ere».

Antezlanek ere argitaratu ditu, eta haur eta gazte literaturako lanak ere idatzen ditu. Eta hizkuntza izan du ardatz telebistan aurkeztutako saio batzuetan ere. Galesko dialektoen aberastasuna erakusten aritzen, esaterako, *Ar Lafar* izeneko telebista saioan. Baina hasi, dena Londresko bere etxean bizitakotik hasi zela dio berak. Hor liluraren lehen hazia. «Galesko leku ezberdinetatik heldu ziren nire gurasoak, eta gauza bera izendatzeko modu ezberdinak zituztelako batak beste-ari adarra nota jzuten zion entzuten hazi nintzen».

Modernismoaren faroa


Alex Gurrutxaga

Virginia Woolfen *Farorantz* eleberria 1997an argitaratu zuten euskaraz lehen aldiz.

Orain Anton Garikanoren itzulpen berritua kaleratu dute Elkarren Urrezko Bibliotekan. Bere garaiko eleberrigile apagarrienetakoa da Woolf, eta emakume gisa bide-urratzaile garrantzitsua. Modernismoaren urrezko hamarkadan, 1927an, argitaratu zuen *Farorantz*. Funtsean, familia batek Eskoziako uharte batera egindako bisitak dira eleberriarren aitzakia; baina, egiazki, familia eta lagunarte horren bizimoduak kontatzen zaigu.

Gizakumea ez dabil zorientasunaren bila, esan zuen Nietzschek, baizik ingelesak. Bilaketa etsian dabilta Woolfen pertsonaiaik: «Zorionak ez zuen irau-

ten», pentsatzen du Ramsay andreak; «Beste inork baino gehiago merezi omen zuen hark zoriona», irakurriko dugu erditzean hildako Prue Ramsayri buruz. Bizitzaren gogortasuna eta pertsonaren bakardade esentziala agertzen dute pertsonaiek, baita harremanetan sartzeko zailtasuna ere. Pertsonaien portaera eta pentsamenduan ikusten dugu



'Farorantz'

Egilea: Virginia Woolf. Itzultzailea: Anton Garikano. Argitaletxea: Elkar.

Asmoak eder, eginak lander

HAUR ETA GAZTE LITERATURA


Imanol Mercero

Asmo ederreko erronka bati heltzen dio narratioak, abiapuntu gisa armiarma baten eta injustizia pairatzen duten gizonen bizipenak parekatirik.

Tamalez, zalantza dut bitartekoekin eta hartutako bideekin asmatu ote den. Esaterako, ez dut ulertzen zergatik armiarma bere burua itsusiztat hartzen duen desberdintasunaren onurak aldarrikatzea denean helburua. Eta alderdi «teknikoari» erreparatuaz berdin: bere burua ezjakintzat jotzen badu ere, narratzaile orojakile gisa jokatzen duelarik, iruditzen zait kontraesan gaindiezinezko batean sartzen dela, eta desoreka horren iturburua, hain zuzen, lehen pertsonan ari-

tzeagatik datorkiola. Askoz sinisgarriagoa zatekeen hirugarren pertsonan kontaktizuna.

Antzeko zerbait sentitu dut liburuan dauden irudiek. Ilustrazio koloretsuak dira, testuaren informazioarekin bat datozenak, eta komposizio eraginkorra erakusten dutenak, baina hori da euren alde esan litekeen onena, zeren –ez dakit propio baldar eginak diren– baina daukaten egikera «amateurrak» bat baino gehiago atzera botako du.



'Armiarma txiki baten epopeia handia'

Idazlea: Parko Aristi. Itzultzailea: Miren Uribelarrea. Argitaletxea: Erein.

hori, baina baita inguruaren aldatetetan ere, hainbat elementu sinbolikok islatzen baitu pertsonaien izatea: urte-saso aldaketek, etxearenak, Lilyren margolanarenak, eta abarrek.

Formalki oso landua da. Bate-tik, denboraren trataera berritzailea dago. Tenpoa oso mantsoa da, baina baita aldakorra ere: lehen atal luzeak egun bakarra irauten du, bigarrenak –laburrenak– hamar urte, eta azkenak berriz egun bat; eta denboran aurrera eta atzera ibiliko gara eten-gabe, unearen eta orotzapenen artean zabuka.

Bestetik, pertsonaien barne-munduaren garrantzia dago. Errealitate hautsia islatzeko krisi beteak, Dostoievskiren errealis-mo psikologikoa mugara eramanez Joycek eta Woolfek –abangoardien loraldian gaude–, eta hemen garrantzitsuagoa da pertsonaien barrua gertaeren harria baino. Pertsonaia fokalizatua etengabe aldatzen da, eta, narratzaile guztien barruan sartzen denez, ikuspegiak pilatuz doa; irakurlea pertsonaia batetik bestera dabil, portaera eta harreman zertzeladaz beteen zurrumbilaoan.

Eta nobelak ez du asko falta zurrumbilao espermental horrek hondora dezan, baina puntaren puntan eusten dio.

Pertsonaien barne-mundua kontaezan ere islatzen da: pentsamendu ordenatuaren eta trumilka sortzen den barne-bakarrizketaren arteko diskurtsoa, zehar esatilo librea –agian historian parerik ez daukana–, parentesiak, esaldi luzeak, eta abar. Estiloa, oro har, poetikotasun apartekoa da: ezer gertatzen ez denean ere, adibidez gau geldian, Woolfen begia adi dago inguruaren deskribapen impresionista zoliak egiteko. Estilo hau erronka latza da itzultzailearentzat, eta, nire ustez, txalotzeko lana da A. Garikanorena.

Hitz batean, *Farorantz* eleberririkaragarria da. Bai kalitateagatik bai nobelagintzari ekarri zion modernitateagatik, literaturaren historiako esanguratsuenetako bat da –gehitu horri emakumearen begiradari eman zion indarra–. Akaso gaurko irakurleontzat ez da idazle erraza, mantsoa eta psikologikoa baita, eta idazkera konplikaturakoa. Baina tonua harrapatzeko lana hartuz gero, gozamen literarioa ziurra da.

Esperientzia geziak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Dibulgazio liburu gutxi argitaratzen dira euskaraz. Eta ez dut ulertzen zergatik. Ematen du eskolako hormetatik irten ezin den kontu bat dela jakintza: han barruan jakintza, hemen kanpokeria «ignorantzia»?!! Ez, ez dut ulertzen.

Tristeena da gaur egungo jakintza liburuek ongi pasatzeko tresna perfektuak diruditelako, irudi, grafiko, azalpen koadrotxo eta beste hamaika estrategia komunikatibo erabiltzen dutelarik.

Esku artean dugun liburu honek, esaterako, zeharka pizten du zientzia zaletasuna, astronautak fokuan hartuta.

Oinarritzko irakurketa baten-tzat da egokia, bere orrialde lodi plastifikatuekin, alderik alde irudiak dituztela eta euren gainean azalpenak.

Astronautengan jartzen da fokua, eta tartekatutik eguzki-sistema, izarrak eta galaxiak azaltzen dira. Gutxiengoa baten lanbide elitista dela ukatu gabe, haren inguruan espazioari buruz eta astronomiari buruz sortzen den lilura abiapuntu zoragarriak dira, bai naturaren, bai bizia gainera galderak barra-barra erretzeko. Halakoa jendartean zeharka igarotzen diren esperientzia geziak direla ez ahaztu.



'Nire lehen espazioko liburua'

Egilea: Emily Bone. Itzultzailea: Lee Cosgrove. Itzultzailea: Nagore Irazustabarrena. Argitaletxea: Ttartalo.